



# UEMAko herrien osasan-zerbitzua

Osasan-langileen  
euskara-gaitasunaren azterketa

2023ko apirila



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

# AURKIBIDEA

<b>ATARIKOA.....</b>	<b>3</b>
<b>1. UEMA-KO UDALERRIETAKO OSASUN-ZENTROAK .....</b>	<b>5</b>
Osakidetza .....	9
Osasunbidea .....	10
Hutsik dauden postuak.....	11
Gako nagusiak.....	13
<b>2. UEMA-KO HERRITARREN LEHEN ARRETAKO ZENTROAK .....</b>	<b>14</b>
Gako nagusiak.....	17
<b>3. ERREFERENTZIAZKO OSPITALEAK.....</b>	<b>18</b>
Osakidetza .....	21
Osasunbidea .....	24
Gako nagusiak.....	26
Asuncion klinika.....	27
<b>4. ONDORIOAK.....</b>	<b>28</b>
<b>5. ERANSKINA .....</b>	<b>30</b>

## ATARIKOA

Herritarrentzat oinarri-oinarrizko zerbitzu publikoa da osasun arlokoa, eta euskaraz jasotzeko eskubidea aitortua dute euskara ofiziala den eremuetako herritarrek. Urteotan urrats handiak egin dira osasunaren eremuan: 2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, udalerrri euskaldunetan 30 urtean bikoiztu egin da euskararen erabilera osasun-zerbitzuetan. Baina oraindik egiturazkoa da hizkuntza-eskubideen urraketa, eta UEMAko udalerrriak ez dira salbuespena: egia da udalerrri horietako osasun-zentroetan handiagoak direla hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-mailak, euskaldun-dentsitate handiagoa daukatelako, baina langileen kopuru esanguratsua ari da lanean postuari dagokion euskara-gaitasuna egiaztatu gabe. Areago, UEMAko udalerrrietatik kanpora jo behar izaten dute biztanleek osasun-zerbitzu batzuk jasotzera, eta horietan makurragoa da egoera.

UEMAren ildo estrategikoa da udalerrriak erabat euskalduntzea, eta, helburu hori lortzeko, osasun-zerbitzuan ere bermatu behar da herritarrek aukera izango dutela euskaraz aritzeko. Horretarako, besteak beste, herrietan sortzen diren gorabeheren jarraipena egiten du UEMAk, dagokion osasun-zerbitzuaren bidez arazoak bideratzen ahalegintzeko. Horrez gain, bi urtean behin argazki sakon bat egiten du, udalerriz udalerriko egoera zein den aztertzeko. Hori bildu da dokumentu honetan.

## METODOLOGIA

2021ean egindako azterketaren oinarriari segitu zaie analisisa egiteko. UEMAko herritarrei zerbitzu ematen dieten osasun-zentroak hartu dira erreferentzia modura, honako hiru geruza hauen bidez:

1. **UEMAko herrietako osasun-zentroak.** 101 udalerrri dira UEMAko kide, eta horietan guztietan dauden osasun-zentroetako azterketa xehatua egin da, lanpostuz lanpostukoa.
2. **UEMAko herriei arreta ematen dieten osasun-zentroak.** UEMAko udalerrri batzuetan ez dute osasun-etxerik, edo osasun-etxean ez dituzte ematen oinarritzko zerbitzu guztiak. Halakoetan, beste udalerrri batzuetara jo behar izaten dute, eta batzuk ez daude UEMAn. Hemen jaso dira biztanle horiei zerbitzu eman baina UEMAn ez dauden herrien datuak.
3. **Erreferentziazko ospitaleak.** Oinarritzko osasun-arretatik harago, udalerrri guztiek dute izendatua erreferentziazko ospitale bat, zerbitzu espezializatua eta larrialdikoa jasotzeko. UEMAko udalerrrien erreferentziazko ospitaleetako hizkuntza-eskakizunak aztertu dira.

Erreferentziatzko ospitaleen artean sartu da Tolosako Asuncion klinika: zentro pribatua da, baina zerbitzu publikoa ematen du UEMAko 23 herritan, Osakidetzarekin ituna eginda.

Informazio ofiziala erabiliz egin da azterketa. Datuak kontrastatu egin dira ahal izan den kasu guztietan, udalerriz udalerrri, eta, kontraesanen bat sumatu denean, berariaz egin da horren oharra.

1. **Osakidetza.** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Eusko Legebiltzarrari 2023ko otsailaren 13an bidalitako informazioa erabili da (12/10/07/02/02698-155 espediente-zenbakia). Osakidetzako lanpostu guztiei buruzko informazioa ageri da dokumentazio horretan. Alde batetik, lanpostu bakoitzaren ezaugarriak: erakundea, zentroa, unitatea, lanpostu funtzionala, kodea, ezarritako hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data. Bestetik, datuak biltzean postu bakoitzean zegoen beharginak egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
2. **Osasunbidea.** Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak otsailaren 23an Nafarroako Parlamentuari bidalitako informazioa erabili da iturri gisa (10-23-PEI-0000025 eskaera). Bi dokumentu erkatu dira: alde batetik, Osasunbidearen plantilla organikoa, zehaztuta zein postutan den derrigorrezkoa euskaraz jakitea; bestetik, euskaraz jakiteko betebeharra duten lanpostu horietan zein den egoera, langileak dagokion gaitasuna egiaztatu ote duen.
3. **Asuncion klinika.** Osakidetzak itundutako zentroa denez, erakunde publikoen bitartez eskuratu da Asuncion klinikaren informazioa: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak helarazi dio Eusko Legebiltzarrari (12/10/07/02/02693-135 espediente-zenbakia). Zehazki, honako informazio hau jaso da langilez langile: identifikazioa, kategoria, saila, euskara-maila eta zentroa. Asuncion klinikak ez dauka zehaztuta postu bakoitzari zer hizkuntza-eskakizun dagokion, eta, analisisa egiteko, Osakidetzak erabiltzen dituen irizpideak hartu dira oinarri.

## 1. UEMA-KO UDALERRIETAKO OSASUN-ZENTROAK

Udalergi Euskaldunen Mankomunitateko 64 udalerritan daude osasun-zerbitzuak herrian bertan; alegia, mankomunitateko udalerrien % 63an. Honako hauek dira, herrialdearen arabera bildurik:


- **Gipuzkoa (36):** Alegia, Amezketa, Amasa-Villabona, Antzuola, Asteasu, Astigarraga, Ataun, Azpeitia, Berastegi, Bergara, Bidania-Goiatz, Deba, Elgeta, Errezil, Ezkio-Itsaso, Getaria, Ibarra, Idiazabal, Irura, Itsasondo, Legorreta, Lizartza, Mendaro, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Orio, Segura, Tolosa, Usurbil, Zaldibia, Zarautz, Zestoa, Zumaia.
- **Bizkaia (22):** Amoroto, Areatza, Arrankudiaga, Atxondo, Aulesti, Bakio, Bermeo, Berriatua, Busturia, Dima, Ea, Igorre, Izurtza-Mañaria, Larrabetzu, Lekeitio, Mallabia, Markina-Xemein, Muxika, Ondarroa, Orozko, Otxandio.
- **Nafarroa (5):** Baztan, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Leitza, Lesaka.
- **Araba (1):** Aramaio.

Kontuan izatekoa da, gainera, udalergi horietako batzuek, ohiko osasun-etxeaz harago, badituztela etengabeko arretarako guneak edo larrialdi-zerbitzuak. Hauexek: Gipuzkoan, Azpeitiak, Bergarak, Hernanik, Tolosak eta Zarautzek; Bizkaian, Bermeok, Lekeitio eta Ondarroak; eta Nafarroan, Baztanek, Doneztebek, Etxarri Aranatzek, Leitza eta Lesakak. Horiek ere txertatu dira azterketan.

UEMAko udalerrietako osasun-zentroetan 821 lanpostu daude guztira: Osakidetza 669 postu eta Osasunbidearen 152 postu. Lanpostu horiek honako lau multzo orokor hauetan bana daitezke:


- **Medikuak** (familia-medikuak, larrialdietakoak eta pediatriak): 312 lanpostu, guztien % 38.
- **Erizainak eta erizain laguntzaileak** (emaginak barne daudela): 324 lanpostu, guztien % 39.
- **Administrariak** (laguntzaileak eta harreragileak barne direla): 113 lanpostu, guztien % 14.
- **Zeladoreak:** 48 lanpostu, guztien % 6.
- **Bestelakoak** (gizarte-langileak, fisioterapeutak, ginekologoak...): 24 lanpostu, guztien %3.

Ondorengo grafiko honetan jaso da arlo bakoitzean zenbat lanpostu dauden UEMAko udalerrietan.

**1. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuak (2023)**


Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

UEMAko udalerrietako 821 lanpostu horietatik % 87k daukate euskaraz jakiteko derrigortasuna ezarria: 714 lanpostuk. Arlo guztietan postu gehien-gehienek dute euskaraz jakiteko baldintza, bestelakoen multzokoek izan ezik. Pediatretan eta emaginetan postu guztiek dute baldintza jarria.


**2. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuak, derrigortasunaren arabera (% , 2023)**


	Medikuak	Pediatriak	Erizainak	Erizain laguntzaileak	Emaginak	Admin.	Zeladoreak	Besteak
Postuak	267	45	287	19	18	113	48	24
Eus derrigor	235	45	245	16	18	97	46	12
Derrigor %	88,0	100,0	85,4	84,2	100,0	85,8	95,8	50,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

Hizkuntza-eskakizunena da txanponaren alde bat: zenbat postutan den euskara jakin beharrekoa. Beste aldeak garrantzi handiagoa du, baina: zenbat lanpostutan ari diren euskarazko gaitasuna egiaztatu duten langileak. Informazio hori eskuratzeko izan da muga bat: Osasunbideak, izan ere, euskara jakitea derrigorrezkoa den postuetan soilik aztertu du langileak euskaraz badakien ala ez; gainerakoetan, langileak ez dakiela hartu da oinarritzat. Argazki orokorra hau da: postuen % 70ean daude hizkuntza-eskakizuna egiaztatutako beharginak; horrenbestez, hamar postutik hirutan, ez.


3. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuak, euskara egiaztatzearen arabera (% , 2023)



Iturria: Eusko Jaurlaritz eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua.

Arlo batetik bestera badago diferentzia euskara egiaztatzeari dagokionez. Erizain laguntzaileetan eta bestelakoetan, gehienak egiaztatu gabe daude. Gainerakoetan, gehienek badute, baina betiere bost langiletik bat baino gehiago ari dira egiaztatu gabe. Pediatretan, bostetik bik ez dute euskara-maila.

4. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuak, arloaren eta euskara egiaztatzearen arabera (% , 2023)




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Emaginak	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	267	45	287	19	18	113	48	24
Eus egiaztat	192	27	222	9	10	76	35	7
Egiaztatu %	71,9	60,0	77,4	47,4	55,6	67,3	72,9	29,2

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

Datu orokor horien azpian, hala ere, diferentzia handia dago osasun-zerbitzu batetik bestera. Osakidetzari dagokionez, UEMako udalerrietako lanpostuen % 99k daukate derrigortasuna: 669 lanpostuetatik 663k. Osasunbidean, berriz, UEMako udalerrietako lanpostu gehienetan ez dute euskaraz jakitea eskatzen: 152 lanpostuetatik 51tan dago derrigortasuna finkatua (postuen % 34).


#### 5. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuen derrigortasunak, sarearen arabera (% , 2023)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

Euskara-gaitasuna egiaztatua duten langileen ehunekoan ere berebiziko aldea dago Osakidetzaren eta Osasunbidearen artean: Osakidetzan, bost langiletik batek egiaztatu gabe du postuari dagokion hizkuntza-gaitasuna; Osasunbidean, langile gehienek, lautik hiruk, maila egiaztatu gabe dihardute.

#### 6. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuetan euskara egiaztatuak, sarearen arabera (% , 2023)




Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.



## OSAKIDETZA

Osakidetzako lanpostu guztiek zehaztuta daukate zer hizkuntza-eskakizun dagokien (B2). Horrez gain, UEMako udalerrietako lanpostu gehien-gehienek finkatua dute derrigortasun-data ere, hau da, noiztik aurrera den eskakizun horri derrigor egiaztatu beharrekoa. Erabat orokortuta daude derrigortasun-datak UEMako udalerrietan: hiru mediku-postuk eta hiru erizain-postuk ez dute.

7. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuen derrigortasunak Osakidetzan (% 2023)




	Medikuak	Pediatriak	Erizainak	Erizain lag	Emaginak	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	219	40	230	14	18	92	46	10
Eus derrigor	216	40	227	14	18	92	46	10
Derrigor %	98,6	100,0	98,7	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. UEMak landua.

Lanpostuari dagokion eskakizunaren betetzea arloz arlo aztertuz gero, agerian geratzen da nolako aldeak daude. Alde batean, erizainen datua da nabarmentzekoa: hamarretik bederatzik egiaztatua dute euskara-gaitasuna; medikuak, administrariak eta zeladoreak batez besteko datuaren parean dabilta, % 75-80 inguruan. Beste ertzean daude pediatriak, emaginak eta erizain laguntzaileak: horietan, langileen herenak baino gehiago ari dira UEMako herrietan euskara-maila egiaztatzeke.

8. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuetan euskara egiaztatuak Osakidetzan (% , 2023)




	Medikuak	Pediatriak	Erizainak	Erizain lag	Emaginak	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	219	40	230	14	18	92	46	10
Eus egiaztat	179	25	206	7	10	73	35	5
Egiaztatu %	81,7	62,5	89,6	50,0	55,6	79,3	76,1	50,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. UEMak landua.

## OSASUNBIDEA

Osasunbideak UEMako udalerrietan dauzkan lanpostu gehienetan ez dago euskaraz jakiteko betekizunik: hiru postutik bitan ez dute euskara eskatzen. Pediatrien kasua da salbuespena: bost lanpostu dira, eta guztietan da derrigorrezkoa euskara. Gainerako arloetan, postu gehienetan ez da euskara eskatzen: ez medikuetan (% 40), ez erizainetan (% 32) eta ez administrarietan (% 24).

9. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuen derrigortasunak Osasunbidean (% , 2023)




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	48	5	57	5	21	2	14
Eus derrigor	19	5	18	2	5	0	2
Derrigor %	39,6	100,0	31,6	40,0	23,8	0,0	14,3

Iturria: Nafarroako Gobernua. UEMAK landua.

Egiaztatzeari dagokionez, are makurragoak dira Nafarroako datuak: lau langiletik hiruk ez dute euskara-gaitasuna egiaztatua. Espezialitate guztietan dira gutxiengoa euskaraz jardun daitezkeen langileak: pediatrian (% 40), erizaintzan (% 28), medikuntzan (% 27), administrazioan (% 14)...

#### 10. grafikoa: UEMako udalerrietako osasun-postuetan euskara egiaztatuak Osasunbidean (%), 2023)



	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	48	5	57	5	21	2	14
Euskara egiaztatuak	13	2	16	2	3	0	2
Egiaztatu %	27,1	40,0	28,1	40,0	14,3	0,0	14,3

Iturria: Nafarroako Gobernua. UEMAK landua.

## HUTSIK DAUDEN LANPOSTUAK

Azken urteotan gorabehera handiak izan dira osasun-zerbitzuko lanpostuekin, erakundeek arazo handiak baitauzkate postu batzuetarako beharginak aurkitzeko. Arazo horiek bereziki eragin dute udalerrri euskaldunetan, herri txikiak baitira asko. Bi gisatako arazoak gertatu dira: alde batetik, hizkuntza-eskubideen ikuspegitik, euskaraz ez dakiten langileak jartzea euskara derrigorrezkoa den lanpostuetan, eta areago ordezkapenak egitean; bestetik, hizkuntzatik harago, lanpostu horiek

ez betetzea, ezaugarri horietako langilerik ez dagoelako. Datu horri ere erreparatu zaio azterketa honetan, alegia, udalerrri euskaldunetako lehen arretan zenbat lanpostu dauden beharginik gabe.

Informazio ofiziala erabiliz egin da analisisia. Batetik, Osakidetzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2023ko otsailaren 28an Eusko Legebiltzarrari igorritako dokumentaziotik atera da informazioa (espediente-zenbakia: 12/10/07/02/02795-552); txosten horretan, datuak eman zituen Osakidetzan une horretan bete gabe zeuden mediku- eta pediatria-postuei buruz. Bestetik, Osasunbideari dagokionez, hizkuntza-eskakizunei buruzko informazioarekin batera bidali zituen Osasun Departamentuak hutsik dauden postuei buruzko datuak (10-23-PEI-0000025 eskaera). Badago aldea datuen artean, beraz: Osasunbidean, hizkuntza-eskakizunen datuetan aintzat hartuta daude hutsik dauden postuak; Osakidetzan, ez, bide desberdinetatik jasotako informazioa da eta.

Jasotako informazioaren arabera, UEMAko udalerrietan honako lanpostu hauek daude bete gabe:

- **Osakidetzak.** UEMAko udalerrietan 16 mediku-postu daude bete gabe, %7. Zentro hauetako lanpostuak dira: Amasa-Villabona (2), Amoroto, Antzuola, Asteasu, Azpeitia, Bermeo, Hernani (2), Irura, Markina-Xemein, Mutriku, Oñati, Tolosa, Zarautz (2). Egoera makurragoa da pediatrian: 8 postu daude bete gabe, UEMAko herrietako bost postutik bat. Osasun-etxe hauetan: Bergara, Bermeo, Igorre, Markina-Xemein, Oñati (2), Tolosa (2).
- **Osasunbidea.** Euskaraz jakitea derrigorrezkoa den postuetako informazioa soilik bildu du Osasun Departamentuak. Pediatrian da egoera makurrena: UEMAko herrietan bost postu daude, eta horietako hiru hutsik daude (Doneztebe, Lesaka eta Elizondo). Euskaraz jakitea derrigorra den mediku-postuei dagokienez, bat dago hutsik, Leitzan; postuen % 5 da hori.

## GAKO NAGUSIAK

- UEMAKo 64 herritan daude osasun-etxeak, eta guztira 821 lanpostu daude horietan: Osakidetzaren 669 eta Osasunbidearen 152.
- Lanpostu gehienek, % 89k, bete beharreko hizkuntza-eskakizuna daukate. Aldea dago Osakidetzatik (% 99) Osasunbidera (% 34).
- Egiaztatzeari dagokionez, ia hiru langiletik bat ari da UEMAKo herrietan euskara-maila egiaztatu gabe (% 30). Sistemaren arabera alde handia dago egiaztatzeari dagokionez: Osakidetzan, ez du egiaztatu bostetik batek (% 19); Osasunbidean, lautik hiruk (% 75).
- Hutsik dauden lanpostuetan, pediatriakoa da nabarmenena: UEMAKo udalerrietan 45 postu daude, eta 11 bete gabe daude (% 24).

## 2. UEMA-KO HERRITARREN LEHEN ARRETAKO ZENTROAK


UEMAko udalerrietan dauden zentroetatik aparte, badira herri horietako biztanleei oinarrizko osasun-zerbitzua ematen dieten zentro gehiago, UEMAkoak ez beste herri batzuetan daudenak. Horiek jaso dira atal honetan: UEMAko udalerrietako biztanleek UEMAkoak ez diren herrietan jasotzen dituzten oinarrizko osasun-zerbitzuak. Horiek aztertzeke, herrian bertan ez dauzkaten zerbitzuetako lanpostuak soilik hartu dira; alegia, adibidez, UEMAko udalerrri batean familia-medikua baldin badago baina pediatarrik ez, UEMAko herritarrak arta ditzaketenen gaitasuna soilik aztertu da osasun-zentro horretan —adibideko kasuan, pediatria, erizaintza eta harrera—.

UEMAko udalerrietatik kanpo dauden honako osasun-zentro hauek hartu dira kontuan:

- **Gipuzkoa (11):** Arrasateko anbulatorioa, Beasaingo anbulatorioa, Beasaingo EAG, Eibarko EAG, Eibarko ospitaleko EAG, Elgoibarko EAG, Errenteriako EAG, Lazkaoko osasun-zentroa, Ordiziako osasun-zentroa, Zumarragako EAG, Zumarragako osasun-zentroa.
- **Bizkaia (10):** Durangoko EAG, Ermuko osasun-zentroa, Ermuko EAG, Galdakaoko osasun-zentroa, Gautezigko kontsultategia, Gernikako osasun-zentroa, Iurretako kontsultategia, Landako-Durangoko osasun-zentroa, Mungiako EAG, Mungiako osasun-zentroa.
- **Nafarroa (2):** Ultzamako osasun-zentroa, Irurtzungo osasun-zentroa.
- **Araba (2):** Laudioko osasun-zentroa, Laudioko EAG.

Zentro horietan 376 lanpostu daude UEMAko udalerrietako biztanleei zerbitzu ematen dietenak. Zazpi postutik seitan hizkuntza-eskakizuna derrigorrez bete behar da (% 86): 376 postuetatik 323tan.

11. grafikoa: UEMAkoak ez diren udalerrietako osasun-postuak, derrigortasunaren arabera (% , 2023)




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Emaginak	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	71	39	99	4	10	103	38	12
Eus derrigor	51	38	78	4	10	99	37	6
Derrigor %	71,8	97,4	78,8	100,0	100,0	96,1	97,4	50,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAK landua.

Osasun-zentro horietan hiru postutik bitan daude hizkuntza-eskakizuna egiaztatutako langileak: 376 lanpostuetatik 248tan. UEMAKo udalerrietan baino apalxeagoa da ehunekoa (% 70 vs % 67).


12. grafikoa: UEMAKoak ez diren udalerrietako osasun-postuak, euskara egiaztatzearen arabera (% , 2023)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAK landua.

Eskakizuna egiaztatu duten beharginen ehunekoa apalagoa da familia-medikuen artean (% 51), baita erizainetan ere (% 65). Pediatrian, berriz, handiagoa da hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenen ehunekoa (% 72), eta, areago, UEMAKo udalerrietan baino ere handiagoa (% 60 vs % 72).

13. grafikoa: UEMAKoak ez diren udalerrietako osasun-postuak, egiaztatzearen arabera (% , 2023)




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Emaginak	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	71	39	99	4	10	103	38	12
Eus egiaztat	36	28	64	4	8	81	21	6
Egiaztatu %	50,7	71,8	64,6	100,0	80,0	78,6	55,3	50,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuua. UEMak landua.

Sarearen arabera alde nabarmena dago UEMakoak ez diren udalerrietan ere. Euskara jakiteko betebeharrari dagokionez, Osakidetzako lanpostu gehien-gehienek daukate derrigortasun-data jarria, 322 postuetatik 308k (% 96); Osasunbidean, berriz, gutxiengoak, 54 postuetatik 15ek (% 28).


**14. grafikoa: UEMakoak ez diren herrietako osasun-postuen derrigortasunak, sarearen arabera (% , 2023)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuua. UEMak landua.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenen ehunekoan ere alde handia dago sarearen arabera. Osakidetzan, ia lau langiletik hiruk dute postuari dagokion euskara-maila (% 73); Osasunbidean, berriz, lautik batek eskas (% 22). UEMako udalerrietako datuekin alderatuta, apalagoak dira biak, baina diferentzia handiagoa da Osakidetzan (% 81 vs % 73), Osasunbidean baino (% 25 vs % 22).

**15. grafikoa: UEMakoak ez diren herrietako osasun-postuetan euskara egiaztatuak, sarearen arabera (% , 2023)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuua. UEMak landua.



## GAKO NAGUSIAK

- Beste herri batzuetako 35 zentrotan ematen diete lehen arreta UEMako udalerrietako pazienteei; zehazki, horietako 376 langilek.
- Lanpostu horietan, zazpitik seitan derrigor jakin behar da euskara (%86): Osakidetzan % 96 dira derrigorrak; Osasunbidean, % 28.
- Osakidetzan, lau langiletik batek dauka postuaren eskakizuna egiaztatu gabe (%27), eta Osasunbidean, ia bostetik lauk (% 78).


### 3. ERREFERENTZIAZKO OSPITALEAK

Oinarrizko osasun-zerbitzutik harago, ospitaleetara ere jo behar izaten dute UEMako herrietako biztanleek, horietan baitaude hainbat zerbitzu: arreta espezializatua, larrialdiak, ospitaleratzeak... Hortaz, UEMako udalerriei zerbitzu ematen dieten erietxeak ere aztertu dira, betiere lantalde organikoko postuen hizkuntza-eskakizunei erreparatuta. Honako zentro hauek izan dira aztergai:

- **Araba (1):** Arabako Unibertsitate Ospitalea.
- **Bizkaia (4):** Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Galdakao-Usansolo Ospitalea, Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea, Gernika-Lumo Ospitalea.
- **Gipuzkoa (5):** Donostiako Unibertsitate Ospitalea, Zumarragako Ospitalea, Mendaroko Ospitalea, Debagoieneko Ospitalea, Eibarko Ospitalea.
- **Nafarroa (1):** Nafarroako Ospitale Gunea.

Ospitale horietan 22.704 lanpostu daude, Osakidetzaren eta Osasunbidearen datuen arabera: Osakidetzakoak dira lanpostuen hiru laurden (16.585), eta laurdenak, Osasunbidekoak (6.119). Aztertutakoen artean Nafarroako Ospitale Gunea (NOG) da erietxerik handiena, beharginen kopuruari dagokionez: 6.119 postu. Haren atzetik daude, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ospitale nagusiak: Donostia (4.301), Gurutzeta (4.231) eta Araba (3.478). Gainerako erietxeetan apalagoa da lanpostuen kopurua; Gernika-Lumoko ospitalea da txikiena: 87 postu dauzka egun.


16. grafikoa: Erreferentziazko ospitaleetako lanpostuak (2023)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

Ospitale horietako lanpostuetan, herenetan baino gehixeagotan da euskaraz jakitea derrigortasun, postuen % 36an (8.271); ia hirutik bitan, % 64an, ez dago jakin beharrik (14.433). Batez besteko horretatik behera daude medikuak, erizain laguntzaileak, zeladoreak, fisioterapeutak eta bestelako multzoan sartutako postuak; nabarmen gorago daude, ostera, pediatriak eta administrariak, % 56an.

17. grafikoa: Erreferentziatzko ospitaleetako lanpostuak, derrigortasunaren arabera (% , 2023)




	Medikuak	Pediatriak	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	4.081	218	6.256	3.908	326	1.985	1.282	4.648
Eus derrigor	1.254	121	2.758	1.277	118	1.119	433	1.191
Derrigor %	30,7	55,5	44,1	32,7	36,2	56,4	33,8	25,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua.

Eskakizunetatik harago zenbat langilek dakiten, informazio hori eskuratzeko izan da muga bat: Osasunbideak euskara jakitea derrigorrezkoa den postuei buruzko informazioa jaso du, hau da, ez du adierazi euskaraz jakitea betekizun ez den postuetan langile euskaldunak dauden ala ez. Hori aintzat hartuta, hau da argazkia: erietxeetan hiru langiletik bat eskasek du eskakizuna egiaztatua.


18. grafikoa: Erreferentziatzko ospitaleetako lanpostuak, euskara egiaztatzearen arabera (% , 2023)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua.

Arlo batetik bestera badago diferentzia euskara egiaztatzeari dagokionez, baina ondorio orokorra argia da: fisioterapian izan ezik, gainerako arlo guztietan langileen gutxiengoak du hizkuntza-eskakizuna egiaztatua. Honako hauek dira hutsune nagusiak: erizain laguntzaileak, medikuak, zeladoreak, pediatrik eta bestelakoen multzoko postuak. Egiaztatze-maila konparatzen baldin bada derrigortasunekin, hau da ondorioa: ezarritako eskakizunen eta lortutakoen arteko alderik handiena pediatrian dago (-24 puntu), eta administrazioan (-18 puntu); kontrara, fisioterapian, derrigor jakin beharreko postuen portzentajea baino handiagoa da egiaztatutakoena (+18 puntu).

19. grafikoa: Erreferentziazko ospitaleetako postuak, arloaren eta euskara egiaztatzearen arabera (% 2023)




	Medikuek	Pediatrik	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	4.081	218	6.256	3.908	326	1.985	1.282	4.648
Eus egiaztat	1.140	68	2.727	839	176	754	377	1.187
Egiaztatu %	27,9	31,2	43,6	21,5	54,0	38,0	29,4	25,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

Datu orokor horien azpian, hala ere, diferentzia handia dago osasun-zerbitzu batetik bestera. Osakidetzari dagokionez, erreferentziazko erietxeetako lanpostuen ia erdiek dute derrigortasuna: 16.585 lanpostuetatik 8.227k. Osasunbidean, berriz, salbuespena dira Nafarroako Ospitale Gunean euskara jakin beharra duten lanpostuak: 6.119 postu daude, eta 45ek daukate eskakizuna.


20. grafikoa: Erreferentziazko ospitaleetako lanpostuen derrigortasunak, sarearen arabera (% , 2023)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua.

Euskara-gaitasuna egiaztatua duten langileen ehunekoan ere berebiziko alde dago Osakidetzaren eta Osasunbidearen artean, nahiz eta betiere gutxiengoa diren eskakizuna egiaztatuta daukatena: Osakidetzan, bost langiletik bi pasatxo dira (% 44), eta Osasunbidean ez dira % 1era ere heltzen.

21. grafikoa: Erreferentziazko ospitaleetako lanpostuetan euskara egiaztatuak, sarearen arabera (% , 2023)




Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua.

## OSAKIDETZA

Osakidetzaren erreferentziazko ospitaleetan postuen ia erdiek dute derrigortasuna ezarria. Hala ere, aldeak daude espezialitate batetik bestera. Batez bestekotik behera daude medikuak (% 43), erizain laguntzaileak (% 45), zeladoreak (% 46) eta bestelakoen multzoan sartutako lanpostuak (% 36); batez bestekotik nabarmen gora daude, ostera, pediatriak (% 72) eta administrariak (% 75).

22. grafikoa: Osakidetzako erreferentziako ospitaleetako postuak, derrigortasunaren arabera (% , 2023)




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	2.936	168	4.716	2.823	205	1.483	921	3.333
Eus derrigor	1.254	121	2.737	1.271	118	1.112	427	1.187
Derrigor %	42,7	72,0	58,0	45,0	57,6	75,0	46,4	35,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzza. UEMak landua.

Eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, berdin, alde nabarmena dago espezialitate batetik bestera. Egiaztatze-maila altuagatik fisioterapia da nabarmena: langileen % 86 dute egiaztatua, nahiz eta lanpostuen % 58k eduki derrigortasuna. Gainerakoetan, derrigortasunen azpitik daude egiaztatzeak: diferentzia handienak pediatrian (-32 puntu) eta administrarietan daude (-25 puntu).

23. grafikoa: Osakidetzako erreferentziako ospitaleetako postuak, egiaztatzearen arabera (% , 2023)




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	2.936	168	4.716	2.823	205	1.483	921	3.333
Egiaztatuta	1.140	68	2.717	833	176	747	371	1.184
Derrigor %	38,8	40,5	57,6	29,5	85,9	50,4	40,3	35,5

Iturria: Eusko Jaurlaritz. UEMak landua.

Ospitale batetik bestera ere diferentzia esanguratsua daude derrigortasun-data ezarrita daukaten lanpostuen ehunekoan. Herrialde bakoitzean, ospitalerik handienak du derrigortasun-daten ehunekorik apalena: Arabak (% 41), Gurutzetak (% 38) eta Donostiak (% 56). Gipuzkoan, erietxe guztietan lanpostu gehienek ezarria dute eskakizuna; Eibarkoa dago buruan, postuen % 88rekin.

**24. grafikoa: Osakidetzako erreferentziako ospitaleetako postuak, derrigortasunaren arabera (% , 2023)**



	Araba	Gurutz	Galdak	Urduliz	Gernik	Donost	Zumarr	Mendar	Debago	Eibar
Postuak	3.478	4.231	1.915	868	87	4.301	629	557	388	131
Eus derrigor	1.427	1.613	1.155	334	71	2.397	427	399	289	115
Derrigor %	41,0	38,1	60,3	38,5	81,6	55,7	67,9	71,6	74,5	87,8


Iturria: Eusko Jaurlaritz. UEMak landua.

Derrigortasunak ezartzeari dagokionez, aldaketa bat izan da Osakidetzaren ospitaleetan: azken bi urteetan nabarmen hazi da derrigortasuna duten postuen kopurua. Hara: 2022an 1.587 posturi jarri zaie derrigortasun-data, eta 2023rako jarria dute 1.070 postuk. Aurreko urteetan nabarmen txikiagoak izan ziren kopuruak: 2021ean 424 izan ziren; 2020an, 404; 2019an, 349; eta 2018an, 169.

Eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, ospitale guztietan da joera bera: derrigortasuna duten postuen kopurua baino apalagoa da eskakizuna egiaztatutako langileen kopurua. Alde handiena

honako hauetan dago: Eibar (-15 puntu), Galdakao-Usansolo (-15 puntu) eta Gernika (-13 puntu). Gipuzkoako ospitale guztietan eta Gernikakoan, erdiek baino gehiagok dute gaitasuna egiaztatua.

25. grafikoa: Osakidetzako erreferentziako ospitaleetako postuak, egiaztatzearen arabera (% , 2023)




	Araba	Gurutz	Galdak	Urduliz	Gernik	Donost	Zumarr	Mendar	Debago	Eibar
Postuak	3.478	4.231	1.915	868	87	4.301	629	557	388	131
Eus egiaztat	1.184	1.551	873	299	60	2.170	392	359	253	95
Egiaztatu %	34,0	36,7	45,6	34,4	69,0	50,5	62,3	64,5	65,2	72,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza. UEMAK landua.

## OSASUNBIDEA

Nafarroan, zentro bakarra da erreferentziakoa UEMAKo herrientzat: Nafarroako Ospitale Gunea. Espezialitate guztietan % 2tik beherakoa da euskara jakin beharra dagoen lanpostuen ehunekoa.

26. grafikoa: Osasunbideko erreferentziako ospitaleetako postuak, derrigortasunaren arabera (% , 2023)






	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	1.145	50	1.540	1.085	121	502	361	1.315
Eus derrigor	0	0	21	6	0	7	6	4
Derrigor %	0,0	0,0	1,4	0,6	0,0	1,4	1,7	0,3

Iturria: Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

Eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, euskara derrigorrezkoa den postuetako informazioa soilik jaso da. Eskakizunen kopurua oso bazterrekoa da, eta, are, euskara derrigorrezko duten lanpostu batzuetan euskara egiaztatu gabeko langileak ari dira. Beren postuaren eskakizun egiaztatua duten langileak kontuan hartuta, hara: 32 postutan daude egiaztatutako langileak, lanpostuen % 0,5ean.

27. grafikoa: Osasunbideko erreferentziatzko ospitaleetako postuak, egiaztatzearen arabera (% , 2023)



	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Besteak
Postuak	1.145	50	1.540	1.085	121	502	361	1.315
Eus egiaztat	0	0	10	6	0	7	6	3
Egiaztatu %	0,0	0,0	0,6	0,6	0,0	1,4	1,7	0,2

Iturria: Nafarroako Gobernua. UEMak landua.

## GAKO NAGUSIAK

- Erreferentziako 11 erietxe dituzte UEMAKo herriek. Horietan, 22.704 lanpostu daude: Osakidetzan, 16.585; Osasunbidean, 6.119.
- Osakidetzan, postuen ia erdiek dute jarria derrigortasuna; Osasunbidean, % 1ek ere ez.
- Eskakizuna betetzeari dagokionez, langileen % 57k dute maila egiaztatu gabe Osakidetzan. Espezialitate gehienetan, eskakizuna duten postuen kopurua baino apalagoa da maila egiaztatutako langileena; administrarietan eta pediatretan daude diferentzia handienak.
- Osasunbidean egoera makurra da: postuen % 1ek ere ez dute eskakizuna zehaztua, eta postu horietako batzuetan maila egiaztatu gabeko langileak ari dira, gainera. Postu guztien % 0,5ean daude euskara egiaztatua duten langileak —betiere euskara derrigor jakiteko baldintza duten postuak oinarri—.


## ASUNCION KLINIKA

Tolosako Asuncion klinika ez da ospitale publikoa, baina erreferentziazko erietxea da UEMako 23 udalerrirentzat, Eusko Jaurlaritzarekin horretarako hitzarmena dauka eta. Hala ere, zentro publikoa ez denez, Osakidetzako eta Osasunbideko datuetatik aparte aztertu da. Osakidetzan, lanpostu guztiek zehaztua dute dagokien hizkuntza-eskakizuna, eta derrigortasun-data ere badute postu batzuek; Asuncion klinikan ez dago halakorik, eta soilik jaso da lanpostu bakoitzean ari den langileak zer maila duen egiaztatua. Postuari zer gaitasun legokiokeen zehazteko, Osakidetzaren irizpideak erabili dira; alegia, jendaurreko lanpostuetan B2 mailako hizkuntza-eskakizuna izatea.

Jasotako datuen arabera, Asuncioneko langileen % 53k dute egiaztatua beren postuari dagokion hizkuntza-eskakizuna: 335 langileetatik 177k. Gipuzkoako ospitale publikoekin konparatuta, Donostia Ospitaleko ehunekoaren zertxobait gaineratik dago Asuncion, eta beste ospitaleen atzetik.

Hutsune nabarmen bat bada, ordea, datu horien azpian: medikuak. Asuncioneko sendagileen % 15ek dute euskara-gaitasuna egiaztatua. Osakidetzan ez dago hain ehuneko apaleko erietxerik. Gainerako espezialitateei dagokienez, zeladoreetan izan ezik, gainerakoetan langile gehienek dute euskara-maila egiaztatua; nabarmentzekoak dira administrariak, fisioterapeutak eta teknikariak.

28. grafikoa: Asuncion klinikako postuak, egiaztatzearen arabera (% , 2023)



	Medikuak	Erizainak	Erizain lag	Fisioterap	Admin.	Zeladore	Teknikariak
Postuak	81	86	68	32	30	19	19
Eus egiaztat	12	48	40	27	25	8	17
Egiaztatu %	14,8	55,8	58,8	84,4	83,3	42,1	89,5

Iturria: Asuncion klinika. UEMak landua.

## 4. ONDORIOAK

UEMAko udalerrietako bizilagunei osasun-zerbitzua ematen dieten eremuak hartu dira aztergai analisi honetan: UEMAko herrietako osasun-etxeak, beste herri batzuetako osasun-zentroak eta erreferentziatzko ospitaleak. Azken ataletan, azterketaren gako nagusiak eta ondorioak bildu dira.

1. **Eboluzio argirik ez.** Aurreko urteetan ere egin ditu gisa bereko azterketak UEMAk, nahiz eta datuak ez diren zuzenean alderagarriak —batetik, UEMA hedatzearen ondorioz herri gehiago sartu direlako aurtengo azterketan, eta, bestetik, aurten aurrekoetan baino datu zehatzagoak eskuratu direlako—. Hala ere, udalerriz udalerriko emaitzak aintzat hartuta, esan daiteke urteotan ez dela aurrerapauso esanguratsurik izan langileen ezagutza aldetik.
